

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2010-2011

Lehen Hezkuntzako 4. maila

Amaierako txostena
2011ko iraila

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA



AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz	5
2. 1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua	5
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia.....	7
2. 3 Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.....	8
2. 4 Eraitza globalak.....	12
2.5 Puntuazioen banaketa	14
3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz	15
3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua	15
3.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	16
3.3 Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.....	17
3.4 Eraitza globalak.....	21
3.5 Puntuazioen banaketa	24
4. Matematikako gaitasuna	25
4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua	25
4.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	27
4.3 Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.....	28
4.4 Eraitza globalak.....	32
4.5 Puntuazioen banaketa	35
5. Gaitasuna atzerriko hizkuntzan (ingeleza)	36
5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua	36
5.2 Gaitasun mailak: esanahia.....	37
5.3 Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.....	38
5.4 Eraitza globalak.....	42
5.5 Puntuazioen banaketa	44

1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. artikulua ezartzen du, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatutakoan, ikastetxe guztiek ikasleek eskuraturiko oinarriko gaitasunen gaineko ebaluazio diagnostikoa eginen dutela. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak izanen ditu:

- Zentsala izanen da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarriko gaitasunei buruzkoa izanen da.
- Ikasle eta gurasoei argibideak emanen dizkie.
- Prestakuntzako izanen da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2011ko diagnostiko-ebaluazio zentsalean irakurmena landu da irakaskuntzako hizkuntzetan, gaitasun matematikoan eta ingelesez; probek erreferentzia gisa 2008-09 ikasturtean argitaratu zen ebaluazioaren esparru teorikoa dute.

Maiatzean, ikastetxeek beren ikasleen emaitzak jaso zituzten, helburu batekin: ikasle bakoitzaren gaineko txostena egitea. Txosten hori familien esku utzi zen ikasturte bukaeran.

Egun batzuk geroago, ekainean, ikastetxeek Educa aplikazioaren bitartez txosten osoa eskuratu zuten, batez besteko estatistikekin, desbideratze tipikoarekin, mailekin, ehunekoekin eta formatu grafikoan emandako gaitasun bakoitzaren informazioarekin.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasleen osotasuna eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzia handia dute gaitasun mailek, itemak gaitasun mailei atxikitzeak eta ebaluaturiko prozesua item bakoitzarekin identifikatzeak.

Ebaluazioak izaera zentsala du

2010-2011 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako matrikula, osotara, 6.602 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzentzen zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da ikasle batzuek ezintasun teknikoa dutela probak beharrezko baldintzetan egiteko. Horregatik, proba ez egiteko hiru salbuespen ezarri ziren: gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak (urtebete baino gutxiago); Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) zentsaturiko

urritasun psikiko edo intelektuala duten ikasleak, edo mugimendu edo zentzumen urritasuna duten ikasleak.

Inguruabar horiek ezartzeak berarekin ekarri zuen proba egitetik 200 ikasle salbuestea eta, azkenean, 6.402 ikasleek egin zituzten probak.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren magnitudea ikusarazten duten datuak:

Matrikulazio eta parte-hartze datuak

	Lehen Hezkuntza 4. maila	
	Kop	%
Matrikula, osotara	6.602	100
Salbuetsitako ikasleak	200	3,03
Azken populazioa	6.402	96,97
Probak egin zituzten ikasleak	6.340	99,03
Probarik egin ez zuten ikasleak	62	0,97

Salbuetsitako 200 ikasleetatik, batzuek probak egin zituzten, eta banakako txostena eskuratu zuten. Hori posible izan zen, tutoreek pentsatu zutelako eskuratuko zen informazioak lagun zezakeela beren lan profesionalean, ikuspegi osagarri eta baliagarri bat izateko.

Txosten honetan emandako emaitza orokorretan (estatistikoetan) ez dira ikasle salbuetsiak kontuan izan.

Bestetik, probak aplikatzeko protokoloan adierazi zen ebaluazio egunean bertan ez zeuden ikasleek ondoko egunetan egin beharko zutela ebaluazioa. Irizpide hori jarraitu da, neurri handi batean, ikasle asko bajaran zeudelako probak egin zirenean.

2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz

2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba hiru testuk osatu dute. Hiru testu horiek estimuluak dira, eta horietatik ondoko galderak atera dira:

"¿Dónde está la primavera?" testutik 11 item egin ziren, "Los esquimales" testutik, 13 eta "Harry Potter y la piedra filosofal": la película"-tik, 5.

29 itemetatik 26k puntu bateko balioa izan dute eta 3k, 2 puntukoa. Kasu hauetan, puntu bateko puntuazio partzialak onartu dira.

Itemen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk errazak gertatu dira (zuzen %96,7k erantzundakoak) eta beste batzuk zailak (ikasleen %40,6k baino ez dituztenak zuzen erantzun).

29 itemei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuarekin dute lotura. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehieneko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluatoriko prozesua.*

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia / Itxia	Gehieneko puntuazioa	Zailtasun-indizea: asmatutakoen %	Ebaluatoriko prozesua
1	Itxia	1	66,9	Ulermen globala
2	Itxia	1	91,8	Informazioa bilatzea
3	Itxia	1	86,2	Informazioa bilatzea
4	Itxia	1	66,5	Informazioa bilatzea
5	Itxia	1	79,6	Informazioa bilatzea
6	Irekia	2	96,7	Ulermen globala
7	Irekia	1	40,6	Ulermen globala
8	Itxia	1	61,9	Informazioa bilatzea
9	Irekia	1	58,2	Edukiaren gaineko hausnarketa
10	Irekia	2	73,7	Interpretatzea
11	Itxia	1	46,0	Interpretatzea
12	Itxia	1	93,1	Ulermen globala

13	Itxia	1	81,9	Informazioa bilatzea
14	Itxia	1	57,8	Informazioa bilatzea
15	Irekia	1	86,7	Informazioa bilatzea
16	Itxia	1	71,1	Formaren gaineko hausnarketa
17	Itxia	1	90,2	Informazioa bilatzea
18	Itxia	1	70,9	Informazioa bilatzea
19	Itxia	1	62,1	Informazioa bilatzea
20	Irekia	2	69,5	Informazioa bilatzea
21	Itxia	1	55,3	Interpretatzea
22	Itxia	1	87,8	Interpretatzea
23	Itxia	1	74,4	Formaren gaineko hausnarketa
24	Itxia	1	77,6	Informazioa bilatzea
25	Itxia	1	63,8	Informazioa bilatzea
26	Itxia	1	45,6	Interpretatzea
27	Itxia	1	63,0	Ulermen globala
28	Itxia	1	91,5	Interpretatzea
29	Itxia	1	70,3	Interpretatzea

2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
Maila honetako ikasleak gai dira narrazio eta azalpen testuetan erabat den ulertzeko. Hala ere, zailtasunak interpretazioa, ulermen orokorra, eta balorazioa eskatzen duten erantzuteko.	Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte 1. mailako galderak; hots, narrazio eta azalpen informazio erabat literala eskatzen dutenak. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere erantzuten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoeraren ulermen maila handiagoa eskatzen dutenean. Nolanahi ere, ikasle horiek ez dute zailtasunik ulermen globalari dagokionez, eta narrazio edo azalpen testu idatzi bat interpretatzeari eta baloratzeari dagokionez.	Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa berreskuratzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera testua globalki ulertzen dute. Maila onargarria dute, edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.	3. mailako atazak zuzen egiteaz gainera, badakite konplexuagoak direnak ere egiten.

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio globala erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz Puntuazio-tarteak	
1. maila	0-17
2. maila	18-21
3. maila	22-28
3+ maila	29-32

2.3. Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.

Maila bereko ikasleen joera da galderak zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 2. itema erraza gertatu zaie ikasleen %91,8ri (testuaren formaren gainean hausnartzeko gai izan dira); 5. itema erraza gertatu da (informazio oso zehatza interpretatzeko gai izan dira); 14. itema ez da hain erraza gertatu (testua bilatu behar zen) eta 26. itema, oro har, zaila izan da (ulermen globaleko prozesua eskatzen zen).

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren korrelazio zuzendua-osotara) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila eta diskriminazio-indizea garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.
- Erantzun irekiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %55ek gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailei, baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun *parziala* edo *osoa* izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zk.	Zein mailari atxikia	Diskriminazio-indizea
1	3. maila	0,28
2	1. maila	0,20
3	2. maila	0,32
4	3. maila	0,39
5	2. maila	0,47
6	1. maila, erantzun partziala 1. maila, erantzun osoa	0,24
7	3+ maila	0,17
8	3. maila	0,38
9	3. maila	0,28
10	1. maila, erantzun partziala 2. maila, erantzun osoa	0,45
11	3+ maila	0,16
12	1. maila	0,36
13	2. maila	0,28
14	3. maila	0,39
15	2. maila	0,46
16	2. maila	0,13
17	1. maila	0,26
18	3. maila	0,40
19	3. maila	0,44
20	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,49
21	3. maila	0,26
22	1. maila	0,34
23	2. maila	0,20
24	2. maila	0,39
25	3. maila	0,27
26	3+ maila	0,29
27	3. maila	0,18
28	1. maila	0,38
29	2. maila	0,29

Gaitasun maila bakoitzeko item ereduak.

Ítem 2. ¿Quiénes preguntaban por la primavera?

- A. Los adolescentes
- B. Las hadas del bosque
- C. Los niños y los animales
- D. Los habitantes de la ciudad

Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatutakoen % 1. mailan	77,1
Asmatutakoen %, osotara	91,8
Diskriminazio-indizea	0,20

Ítem 5: ¿Para qué usa el hada la varita de fuegos artificiales?

- A. Para devolver las hojas a los árboles.
- B. Para señalar el camino a las golondrinas.
- C. Para hacer crecer amapolas en los trigales.
- D. Para repartir granos los adolescentes.

Erantzuna	B
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatutakoen % 2. mailan	65,2
Asmatutakoen %, osotara	79,6
Diskriminazio-indizea	0,47

Ítem 14. Las casas en las que viven habitualmente los esquimales están.....

- A. Hechas de trozos de hielo formando un iglú.
- B. Hechas de ladrillos y cementos y están en la costa.
- C. Hechas de madera y pintadas de colores.
- D. Hechas de troncos y pintadas de blanco para no destacar del paisaje.

Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatutakoen % 3. mailan	65,5
Asmatutakoen %, osotara	57,8
Diskriminazio-indizea	0,39

Ítem 26. El segundo párrafo del apartado "Argumento" dice.: “Porque en Hogwarts hay personajes siniestros y seres que no son lo que parece...”¿Qué significa esa expresión?

- A. Los personajes siniestros no parecen tan siniestros.
- B. Nadie es lo que parece.
- C. todos tienen artes mágicas.
- D. Algunos no aparentan lo que son.

Erantzuna	D
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatutakoen % 3+ mailan	79,3
Asmatutakoen %, osotara	45,6
Diskriminazio-indizea	0,29

2.4. Emaidza globalak

Estatistikoen taula (Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)

Kop osoa	6.402
Kop (gaitasuna)	6.340
Kop (neskak)	3.118
Kop (mutilak)	3.222
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	32
Batez besteko puntuazioa	23,21
Desbideratze tipikoa	5,08
Batez beste (neskak)	23,55
Batez beste (mutilak)	22,89
1. maila (%)	13,8
2. maila (%)	17,6
3. maila (%)	55,1
3+ maila (%)	13,5

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 32 puntu dituztenak eta puntu bakarra dutenak.
- Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %21,9 da.
- "Kop osoa"ren eta "Kop (gaitasuna)"ren arteko aldea proba egin ez zuten ikasleen kopuruak ematen du, ikastetxean ez zeudelako: 62

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehuneko gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaz maila
1. maila	13,8
2. maila	17,6
3. maila	55,1
3+ maila	13,5

Irudikatze grafikoa



Alderdi azpimarragarriak


- 10 ikasletatik ia 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 3 ez dira irakurketa prozesuak behar bezala gauzatzeko gai edo hori egiteko zailtasunak dituzte.
- Ikasleen %13,8 beheragoko maila batean dago eta neurri bereziak behar dituzte.

Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilak baino 0,66 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori ez da handia.


	Batez besteko puntuazioa
Neskek (batez beste)	23,55
Mutilak (batez beste)	22,89

Irudikatze grafikoa



2.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa irudikatzen da.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa banaketa normalarekin (mesokurtikoarekin eta simetrikoarekin) erkatuz gero, honako hau da emaitza:

- Leptokurtikoa da, normala baino zorrotzagoa eta ez hura bezain laua. Puntuazio kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan. Kurtosia: 0,53
- Asimetriko negatiboa da; banaketaren ezkerreko buztana eskuinekoa baino luzeagoa da. Asimetria koefizientea: -0,83.

3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba hiru testuk osatu dute. Hiru testu horiek estimuluak dira, eta horietatik ondoko galderak atera dira:

"*Momia bat*" testutik 14 item egin ziren, "*Antzinako Egiptoko zibilizazioa*" testutik, 8, eta "*Hamalagarren zortzimilakoa lortu du Edurne Pasaban mendizale tolosarrak*" testutik, 6. Osozara, 28 galdera dira, eta horietatik 25ek puntu 1eko balioa dute eta 3k, 2 puntukoa. Kasu honetan puntu bateko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%98,4k asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, zailak dira, eta ikasleen %40,4k baino ez dituzte asmatu.

28 itemei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuarekin daude loturik. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: asmatutakoen %	Ebaluaturiko prozesua
1	Itxia	1	98,4	Interpretatzea
2	Itxia	1	77,6	Informazioa bilatzea
3	Irekia	1	77,7	Edukiaren gaineko hausnarketa
4	Itxia	1	40,4	Interpretatzea
5	Itxia	1	85,9	Informazioa bilatzea
6	Itxia	1	59,2	Interpretatzea
7	Irekia	1	81,5	Interpretatzea
8	Itxia	1	83,9	Interpretatzea
9	Itxia	1	79,1	Informazioa bilatzea
10	Itxia	1	58,1	Interpretatzea
11	Itxia	1	74,9	Interpretatzea
12	Irekia	2	72,5	Edukiaren gaineko hausnarketa

13	Irekia	1	73,4	Informazioa bilatzea
14	Irekia	2	38,4	Ulermen globala
15	Irekia	2	61,6	Interpretatzea
16	Itxia	1	82,1	Informazioa bilatzea
17	Itxia	1	50,2	Informazioa bilatzea
18	Itxia	1	71,3	Informazioa bilatzea
19	Itxia	1	58,9	Informazioa bilatzea
20	Itxia	1	44,1	Edukiaren gaineko hausnarketa
21	Irekia	1	74,8	Informazioa bilatzea
22	Irekia	1	36,3	Interpretatzea
23	Itxia	1	81,4	Informazioa bilatzea
24	Irekia	1	48,8	Interpretatzea
25	Itxia	1	42,1	Ulermen globala
26	Itxia	1	79,6	Formaren gaineko hausnarketa
27	Itxia	1	83,3	Formaren gaineko hausnarketa
28	Irekia	1	52,0	Edukiaren gaineko hausnarketa

3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleek narrazio edo azalpen testu bateko informazio literala ulertzen dute. Horretaz gainera, ulermen globalik eskatzen ez duten interpretazio-ataza oso errazak zuzen erantzuten dituzte.</p> <p>Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.</p>	<p>Maila honetako ikasleek 1. mailako zuzen erantzuten dituzte. Horretaz gainera, bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoera ongi ulertzea eskatzen dutenean. Interpretazio eta hausnarketa ataza errazak ebazten dituzte.</p> <p>Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte narrazio edo azalpen testuak globalki ulertzeko eta interpretatzeko testuak zailxeak badira eta baloratu beharrekoak badira.</p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Horretaz gainera, testua globalki ulertzen dute. Interpretazioaren eta edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila onargarria dute. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleek, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte.</p>

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Irakurtzeko gaitasuna euskaraz Puntuazio-tarteak
1. maila	0-14
2. maila	15-17
3. maila	18-26
3+ maila	27-31

3.3. Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.

Maila bereko ikasleen joera da galderak zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Esate baterako, 4. itema oro har erraza gertatu da, ikasleak gai izan direlako testua interpretatzeko testuinguru erraz batean. 22. itema zailagoa gertatu da eta 17. eta 26. itemak ongi egiten dituzte soilik gaitasun handiagoak dituzten ikasleek.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren korrelazio zuzendua-osotara) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila eta diskriminazio-indizea garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.
- Erantzun irekiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %55ek gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun mailaiei, baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

Item zk.	Atxikipena mailaiei	Diskriminazio-indizea
1	1. maila	0,17
2	2. maila	0,28
3	2. maila	0,25
4	3+ maila	0,13
5	1. maila	0,37
6	3. maila	0,28
7	2. maila	0,38
8	1. maila	0,18
9	2. maila	0,39
10	3. maila	0,29
11	2. maila	0,37

12	1. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,31
13	2. maila	0,48
14	3. maila, erantzun partziala 3+ maila, erantzun osoa	0,34
15	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,49
16	1. maila	0,32
17	3+ maila	0,22
18	2. maila	0,3
19	3. maila	0,42
20	3+ maila	0,31
21	2. maila	0,48
22	3+ maila	0,37
23	2. maila	0,41
24	3. maila	0,41
25	3+ maila	0,46
26	2. maila	0,37
27	1. maila	0,29
28	3. maila	0,33

Gaitasun maila bakoitzeko item ereduak.

8. itema. Zergatik atera zen berehala Grigor gelatik?

- A. Momiak beldurra ematen ziolako.
- B. Erizainak agindu ziolako.
- C. Neskatila ikusi nahi zuelako.
- D. Oso gosetuta zegoelako

Erantzuna	A
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatutakoen % 1. mailan	72,6
Asmatutakoen %, osotara	83,9
Diskriminazio-indizea	0,18

23. itema. Zenbat 8.000 metroko mendi igo ditu Edurne Pasabanek?

- A. Hamasei
- B. Zortzi mila
- C. Hamalau
- D. Ez dakigu

Erantzuna	C
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatutakoen % 2. mailan	65,4
Asmatutakoen %, osotara	81,4
Diskriminazio-indizea	0,41

6. itema. Zergatik esan du don Jazintok “Edefki gaude! Ni elbafi eta hori mutu”?

Zer esan nahi du?

- A. Oso gustura daudela biak
- B. Ezingo direla elkarrekin paseatu
- C. Ikusi eta berehala lagun egin direla
- D. Biak oso gaizki daudelal

Erantzuna	D
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatutakoen % 3. mailan	62,6
Asmatutakoen %, osotara	59,2
Diskriminazio-indizea	0,28

20. itema. Noiz ereiten zituzten haziak?

- A. Uholdeak etorri baino lehenago.
- B. Nilo Ibaiak gainezka egiten zuenean.
- C. Lurra erabat lehor zegoenean.
- D. Uholdetako urak jaitsi eta gero.

Erantzuna	D
Puntuazioa	Puntu 1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Edukiaren gaineko hausnarketa
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatutakoen % 3+ mailan	78,4
Asmatutakoen %, osotara	44,1
Diskriminazio-indizea	0,31

3.4. Emaitza globalak

Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

Estatistikoen taula

Kop. osoa	1.721
Kop (gaitasuna)	1.714
Kop (neskak)	854
Kop (mutilak)	860
Gutxieneko puntuazioa	2
Gehienezko puntuazioa	31
Batez besteko puntuazioa	20,40
Desbideratze tipikoa	5,46
Batez beste (neskak)	20,75
Batez beste (mutilak)	20,05
1. maila (%)	15,3
2. maila (%)	12,5
3. maila (%)	58,7
3+ maila (%)	13,5

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 31 puntu dituztenak, eta 2 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %26,8 da.
- "Kop osoa"ren eta "Kop (gaitasuna)"ren arteko aldea proba egin ez zuten ikasleen kopuruak ematen du, ikastetxean ez zeudelako: 7

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	15,3
2. maila	12,5
3. maila	58,7
3+ maila	13,5

Irudikatze grafikoa



Alderdi azpimarragarriak:

- 10 ikasletatik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik ia 3 ez dira gai irakurtzeko prozesuak behar bezala egiteko edo hori egiteko zailtasunak dituzte.


- Ikasleen %15,3k neurri bereziak behar dituzte, beheragoko maila batean daudelako

Banaketa sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 0,7 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori ez da handia.


	Batez besteko puntuazioa
Batez beste (neskak)	20,75
Batez beste (mutilak)	20,05

Irudikatze grafikoa



3.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Platikurtikoa da: ez normala bezain zorrotza eta hura baino luzeagoa. Puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan. Kurtosia: -0,16
- Asimetriko negatiboa da; banaketaren ezkerreko buztana eskuinekoa baino luzeagoa da. Asimetria koefizientea -0,49 da.

4. Matematikako gaitasuna

4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Probak 3 estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 5-9 item jarri dira. 22 itemetatik 20k puntu 1eko balioa izan dute eta 4k, 2 puntukoa. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%85,5ek asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, hagitiz zailak, eta ikasleen %17k baino ez dituzte asmatu.

22 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematikako prozesu desberdinekin lotuta daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

Itemen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko puntuazioa	Zailtasun-indizea: Asmatutakoen %	Ebaluaturiko prozesua *
1	Itxia	1	52,1	Egoera ulertzea
2	Itxia	1	40,8	Ebazpen matematikoa
3	Itxia	1	44,4	Egoera ulertzea
4	Irekia	1	64,5	Ebazpen matematikoa
5	Irekia	1	31,6	Ebazpen matematikoa
6	Irekia	2	47,1	Ebazpen matematikoa
7	Itxia	1	65,1	Ebazpen matematikoa
8	Irekia	2	61,0	Ebazpen matematikoa
9	Itxia	1	75,2	Egoera ulertzea
10	Itxia	1	58,2	Arrazoitzea
11	Itxia	1	17,0	Ebazpen matematikoa
12	Itxia	1	85,5	Arrazoitzea
13	Itxia	1	87,5	Arrazoitzea
14	Irekia	1	63,4	Ebazpen matematikoa

15	Irekia	1	69,0	Egoera ulertzea
16	Irekia	1	87,2	Arrazoitzea
17	Itxia	1	51,1	Ebazpen matematikoa
18	Itxia	1	53,8	Arrazoitzea
19	Irekia	2	52,5	Ebazpen matematikoa
20	Itxia	1	51,9	Ebazpen matematikoa
21	Irekia	2	64,6	Ebazpen matematikoa
22	Itxia	1	83,1	Egoera ulertzea

* Itemari argien lotutako prozesua hautatu da eta ez da beste prozesu batzuekiko lotura bazterten.

4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleek oso galdera gutxi erantzuten dute zuzen. Maila honetako galderarik arruntena eta estatistikoki adierazgarriena honako hau da: irekiduraren araberrako angeluen sailkapena. Kasu hauetan, probako galderaren formatua eta ikasliburuetan izaten diren ariketena oso antzekoak dira.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeak erantzuteko. Galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarriko maila suposatzen dute. Adibidez, grafiko bat egitea euskarriekin eta exenplifikazioekin, oso oinarriko denbora-kalkuluak egitea, oso taula xumeak interpretatzea eta haietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea. Ataza horietan guztietan ez daude inplikatuak kalkulu matematikoak (edo kalkuluak egiten badira oso oinarrikoak dira). Maila horretan bi urrats egin beharreko problemarik ere ez dago, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar duen arazoitze matematikorik ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute maila honetan espero den bezala. Aurreko mailetak lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek errealako testuinguru errealeko egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Egoera batez jabetzen dira eta hura ulertzen dute, egoera horrek, zenbakizko informazio askorik izan ez arren, maila honetako ikasle batek ustez jakin behar duen arazoitze logiko-matematikoa jakitea eskatzen duenean. Bi urrats egin eta egoera matematiko bat planteatu beharreko problemak ebazten dituzte. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; badakite denbora-kalkulu errealek egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin, etab.</p>	<p>3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila honetan ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 2. eta 3. mailan sartutako atazak menderatzen dituzte. Nolanahi ere, badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk, hala nola, maila honetako ikasleak gai izatea arrazoi matematikoarekin egoera abstraktoagoak ebazteko.</p>

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Matematikako gaitasuna Puntuazio-tarteak
1. maila	0-9
2. maila	10-13
3. maila	14-21
3+ maila	22-26

4.3. Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.

Maila bereko ikasleen joera da galderak zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 13. itema, oro har, erraza gertatu da; ikasleak gai dira bi zuzenerdik osatutako angelu mota identifikatzeko. 14. galdera ez da hain erraza izan; denek ez dute diru-kopuru jakin baten batuketa zuzen egin. 10. itemean arrazoitze prozesu bat planteatu zen grafiko baten laguntzarekin; ez da erraza izan. Orobat, 5. itemean ebazpen prozesu bat jarri zen eta ikaslerik gaituenek soilik ebatzi dute.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren korrelazio zuzendua-osotara) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanzen dutela.

Zailtasun-maila eta diskriminazio-indizea garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.

- Erantzun irekiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %55ek gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun maileri, baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako malgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen itemak maila desberdinei atxikitzen zaizkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<i>Item zk.</i>	<i>Atxikipena maileri</i>	<i>Diskriminazio-indizea</i>
1	3. maila	0,26
2	3+ maila	0,32
3	3+ maila	0,21
4	2. maila	0,39
5	3+ maila	0,31
6	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,46
7	2. maila	0,33
8	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,54
9	1. maila	0,29
10	3. maila	0,24
11*	3+ maila	-0,04
12	1. maila	0,3
13	1. maila	0,25
14	2. maila	0,32
15	2. maila	0,41
16	1. maila	0,13
17	3. maila	0,25
18	3. maila	0,1
19	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,5
20	3. maila	0,35
21	2. maila, erantzun partziala 3. maila, erantzun osoa	0,5
22	1. maila	0,31

* Item honek ez du aurrez ikusitako emaitzik eman; beharbada hura erantzutean ausak eragina izan du.

Gaitasun maila bakoitzeko item ereduak.

13. itema. Zer angelu osatzen dute bi lorratz edo arrasto horiek?

- A. Angelu zorrotza
- B. Angelu zuzena
- C. Angelu kamutsa
- D. 180°



Erantzuna	A
Puntuazioa	1
Mota	Itxia
Matematikako prozesua	Arrazoitze matematikoa
Gaitasun maila	1. maila
Asmatutakoen % 1. mailan	66,3
Asmatutakoen %	87,5
Diskriminazio-indizea	0,25

14. itema. Guraso taldea Vianako aterpetxera iritsi da eta bertako egonaldia ordaintzeko diru kantitate zehatza utzi dute mahai gainean. Zenbat euro kostatuko zaie Vianako aterpetxeko egonaldia?




.....€

Erantzuna	140
Puntuazioa	1
Mota	Irekia
Matematikako prozesua	Ebazpen matematikoa
Gaitasun maila	2. maila
Asmatutakoen % 2. mailan	52,5
Asmatutakoen %	63,4
Diskriminazio-indizea	0,32

10. itema. Begiratu Eunateko ermitaren ganga (sabaia). Iruditzen zaizu zati bakoitzak $1/8$ adierazten duela?

- A. Bai, 8 zati daudelako.
- B. Ez, ez direlako berdinak.
- C. Ezin da jakin.
- D. Bai, sabaia osatzen dutelako.



Erantzuna	B
Puntuazioa	1
Mota	Itxia
Matematikako prozesua	Arrazoitze matematikoa
Gaitasun maila	3. maila
Asmatutakoen % 3. mailan	52,5
Asmatutakoen %	58,2
Diskriminazio-indizea	0,24

5. itema. Zer pisu du irudiko gaztak? Gaztaren pisua zein den jakiteko hona hemen zenbait arrasto (pista):

- Lehen zifra jadanik ezagutzen dugu.
- Zifra guztiak desberdinak dira.



- 4 zifretako zenbakirik txikiena da.

1			
---	--	--	--

Erantzuna	1023
Puntuazioa	1
Mota	Irekia
Matematikako prozesua	Ebazpen matematikoa
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatutakoen % 3+ mailan	63,4
Asmatutakoen %	31,6
Diskriminazio-indizea	0,31

4.4. Emaitza globalak

Matematikako gaitasuna

Estatistikoen taula

Kop. osoa	6.402
Kop (gaitasuna)	6.330
Kop (neskak)	3.111
Kop (mutilak)	3.219
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	26
Batez besteko puntuazioa	15,32
Desbideratze tipikoa	5,07
Batez beste (neskak)	15,19
Batez beste (mutilak)	15,45
1. maila (%)	15,4
2. maila (%)	18,6
3. maila (%)	55,7
3+ maila (%)	10,3


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 26 puntu dituztenak, eta puntu bakarra dutenak.
- Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %33,1 da.
- "Kop osoa"ren eta "Kop (gaitasuna)"ren arteko aldea proba egin ez zuten ikasleen kopuruak ematen du, ikastetxean ez zeudelako: 72

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	15,4
2. maila	18,6
3. maila	55,7
3+ maila	10,3



Alderdi azpimarragarriak


- 100 ikasletatik 66k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 100 ikasletatik 34 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.
- Ikasleen %15,4k neurri bereziak behar dituzte, behezagoko maila batean daudelako.

Banaketa sexuaren arabera

Mutilek neskek baino 0,26 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori ez da handia.


	Batez besteko puntuazioa
Batez beste (neskak)	15,19
Batez beste (mutilak)	15,45

Irudikatze grafikoa



4. 5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin (mesokurtikoarekin eta simetrikoarekin) erkatuz gero, honakoa da:

- Platikurtikoa da: ez normala bezain zorrotza eta hura baino lauagoa. Puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan. Kurtosia: -0,54.
- Asimetriko negatiboa da, zertxobait; banaketaren ezkerreko buztana eskuinekoa baino luzeagoa da. Fisherren asimetria-koefizientea -0,39 da.

5. Gaitasuna atzerriko hizkuntzan (ingeleza)

5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Probak hiru zati izan ditu: entzumena edo "Listening", 8 galderarekin; irakurmena edo "Reading", 10 galderarekin, eta idazmena edo "Writing", irudi bat deskribatzeko.

Hiru hizkuntza trebetasun hauek ez dira probako puntuazio osoan berdin puntuatzen; hona taula honetan puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazio osoaren %
Listening	20%
Reading	60%
Writing	20%

19 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesu desberdinekin lotuta daude.

Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehienezko puntuazioa, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

Item zk.	Irekia/ Itxia	Gehienezko o puntuazioa	Zailtasun- indizea: asmatutakoen %	Ebaluaturiko prozesua
1	Itxia	0,7	57,9	Informazioa bilatzea
2	Itxia	0,7	44,7	Informazioa bilatzea
3	Itxia	0,7	59,2	Informazioa bilatzea
4	Itxia	0,7	80,2	Informazioa bilatzea
5	Itxia	0,7	94,2	Informazioa bilatzea
6	Itxia	0,7	81,0	Informazioa bilatzea
7	Itxia	0,7	60,0	Informazioa bilatzea
8	Itxia	0,7	77,8	Informazioa bilatzea
9	Itxia	1,68	96,3	Informazioa bilatzea
10	Itxia	1,68	66,6	Informazioa bilatzea
11	Itxia	1,68	40,7	Informazioa bilatzea
12	Itxia	1,68	28,9	Informazioa bilatzea
13	Itxia	1,68	53,4	Informazioa bilatzea
14	Itxia	1,68	30,1	Interpretatzea

15	Itxia	1,68	60,4	Informazioa bilatzea
16	Itxia	1,68	38,2	Interpretatzea
17	Itxia	1,68	46,1	Interpretatzea
18	Itxia	1,68	27,2	Informazioa bilatzea
19	A	5.6	54,8	Ekoizpen idatzia

5.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak gai dira informazio agerikoa eta literala ulertzeko. Hala ere, interpretatze-maila jakina duten galderei erantzuteko zailtasunak dituzte. Ez dituzte ulertzen 2. zikloko hitz oso oinarritzkoak. Pertsonaia baten deskribapen oso labur eta oinarritzkoa idazteko soilik gai da, baina gramatikako hutsegite asko eginda.</p>	<p>Maila honetako ikasleek egoki erantzuten dituzte 1. mailako galderak, hau da, informazio literala ulertzea eskatzen dutenak. Horretaz gainera, testuaren ulermendu-maila handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebazten dituzte. Maila honetako hiztegia 1. mailakoa baino zabalagoa da. Hori hala bada ere, testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan zailtasunak dituzte. Ez dira inferentzia konplexuagoak egiteko gai. Pertsonaia bat deskribatzeko zailtasunak dituzte.</p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera testua globalki ulertzen dute eta gai dira hitzetatik haragoko interpretazioa egiteko. Horretaz gainera, testu etendun batean edukiaren banaketa zein den ulertzen dute eta badakite berariazko informazio-mota bat non bilatu. Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen dute eta horrek aukera ematen die egoeren eta ekintzen ulermengurua handitzeko. Gai dira pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko, testuaren ulermena eragozten ez duten akatsen bat egiten badute ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleak 3. mailari dagozkion atazak zuzen egiteko gai dira eta, horretaz gainera, ataza konplexuagoak ebazten dituzte, hiztegiari edo testuaren egitura sintaktikoari dagozkion interpretazio-maila dela-eta konplexuagoak direnak. Gai dira 4. mailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko.</p>

Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Gaitasuna Ingelesean Puntuazio-tarteak
1. maila	0 – 9,9
2. maila	10 - 11,9
3. maila	12- 21,9
3+ maila	22 - 28

5.3. Itemak: informazioa, atxikipena mailei eta adibideak.

Maila bereko ikasleen joera da galderak zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 9. itema oso erraza gertatu da; 13.a zailegia eta 14.a, berriz, ikasle gaituenek soilik egin dute.

Item bakoitzak zailtasun-maila bat du, item hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, item bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren korrelazio zuzendua-osotara) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du itema zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila eta diskriminazio-indizea garrantzitsuak dira item bat gaitasun-maila bati lotzeko orduan. Ondoko irizpide orokor hauek erabili dira:

- Erantzun itxiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %62k gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.
- Erantzun irekiko itema: Kop_i mailari atxiki ahal izateko, maila horretako ikasleen %55ek gutxienez erantzun zuzena eman behar du eta aurreko mailan asmatu ez duten ikasleak %40tik gora izan behar dira.

Hurrengo taulan erakusten da nola atxikitzen zaizkien itemak gaitasun maileri, baina modu kualitatibo eta orientatiboan interpretatu behar da, ez baitira beti betetzen aurreko bi baldintza horiek eta nola edo halako mailgutasun bat onartu behar baita. Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute, "Writing" idazmenean gertatu den bezala.

	Item zk.	Zein mailari atxikia	Diskriminazio-indizea
Listening (%20)	1	3. maila	0,36
	2	3+ maila	0,32
	3	3. maila	0,29
	4	2. maila	0,29
	5	1. maila	0,22
	6	1. maila	0,27
	7	3. maila	0,41
	8	2. maila	0,35
Reading (%60)	9	1. maila	0,18
	10	3. maila	0,24
	11	3+ maila	0,28
	12	3+ maila	0,42
	13	3. maila	0,47
	14	3+ maila	0,16
	15	3. maila	0,33
	16	3+ maila	0,39
	17	3. maila	0,16
	18	3+ maila	0,15
Writing (%20)	19	1. maila: 0,6 puntu 2. maila: 1,7 puntu 3. maila: 3,9 puntu 3+ maila: 5 puntu	0,52

Gaitasun maila bakoitzeko item ereduak.

9. itema. Planet Zoila is...

- A. enormous
- B. huge
- C. small
- D. quite big

Erantzuna	C
Puntuazioa	0,7
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatutakoen % 1. mailan	84,7
Asmatutakoen %	96,3
Diskriminazio-indizea	0,18

10. itema. Planet Zoila is...

- A. a little bit boring
- B. wet sometimes
- C. very far from the Earth
- D. full of wonderful animals

Erantzuna	C
Puntuazioa	1,68
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	2. maila
Asmatutakoen % 2. mailan	57
Asmatutakoen %	66,6
Diskriminazio-indizea	0,24

13. itema. What is the weather like on Planet Zoila?

- A. It is sunny but cold.
- B. It is always rainy.
- C. It is warm but rains all the time.
- D. It is nice and warm.

Erantzuna	D
Puntuazioa	1,68
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Informazioa bilatzea
Gaitasun maila	3. maila
Asmatutakoen % 3. mailan	64,4
Asmatutakoen %	53,4
Diskriminazio-indizea	0,47

14. itema. When visitors feel ill they can go to...

- A. one of the restaurants.
- B. the health centre.
- C. the three star hotel.
- D. Zoila Beach.

Erantzuna	B
Puntuazioa	1,68
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	3+ maila
Asmatutakoen % 3+ mailan	75,1
Asmatutakoen %	30,1
Diskriminazio-indizea	0,16

5.4. Emaidza globalak

Gaitasuna atzerriko hizkuntzan - Estatistikoaren taula

Kop. osoa	6.391
Kop (gaitasuna)	6.301
Kop (neskak)	3.092
Kop (mutilak)	3.209
Gutxieneko puntuazioa	0,7
Gehienezko puntuazioa	28
Batez besteko puntuazioa	15,16
Desbideratze tipikoa	5,21
Batez beste (neskak)	15,52
Batez beste (mutilak)	14,81
1. maila (%)	15,4
2. maila (%)	15,9
3. maila (%)	58,1
3+ maila (%)	10,6

Alderdi azpimarragarriak


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 28 puntu dituztenak, eta 0,7 puntu dituztenak.
- Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %34,4 da.
- "Kop osoa"ren eta "Kop (gaitasuna)"ren arteko aldea proba egin ez zuten ikasleen kopuruak ematen du, ikastetxean ez zeudelako: 90.

Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoa, mailaka
1. maila	15,4
2. maila	15,9
3. maila	58,1
3+ maila	10,6

Irudikatze grafikoa




Alderdi azpimarragarriak:

- 10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.
- Ikasleen %15,4k neurri bereziak behar dituzte, beheagoko maila batean daudelako

Banaketa sexuaren arabera


Neskek mutilek baino 0,71 puntu gehiago erdietsi dituzte. Alde hori ez da handia.

	Batez besteko puntuazioa
Batez beste (neskak)	15,52
Batez beste (mutilak)	14,81



5.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin (mesokurtikoarekin eta simetrikoarekin) erkatuz gero, honakoa da:

- Platikurtikoa da: ez normala bezain zorrotza eta hura baino luzeagoa. Puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan. Kurtosia: - 0,51.
 - Asimetriko positiboa da, zertxobait: banaketaren eskuineko buztana ezkerrekoa baino luzeagoa da. Asimetria koefizientea 0,23 da.
-